


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko urrian, Lanbiden izena emandako langabeen kopurua apur bat jaitsi da. Horrela, Donostian **6.430 langabe zenbatu dira (2.829 gizon eta 3.601 emakume), irailarekin alderatuta 11 pertsona gutxiago.**

- Langabezia % 0,2 egin du behera irailarekin aldean.
- Langabezia % 3,2 egin du behera 2024ko urriarekin aldean.

Urrian zehar, langabeziaren bilakaerak desberdintasun nabarmenak erakutsi ditu gizonen eta emakumeen artean. Gizon langabetuen kopurua % 1,4 igo da, eta emakume langabetuena, aldiz, %1,4 murriztu.

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du ere, % 3,2 (212 langabe gutxiago). 2024ko urriarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak jaitsiera zertxobait handiagoa izan du emakumeena baino (-% 3,7 gizonetan eta % -2,8 emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,0	7,8	9,6
Gizonen langabezia indizea	6,4	6,5	8,0
Emakumeen langabezia indizea	7,7	9,1	11,2
Genero arrakala	1,3	2,6	3,2

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 7era jaitsi da (7,1 iraillean) % 6,4 gizonen artean eta % 7,7 emakumeen artean (ehuneko 1,3 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,8	-1,9
Donostia	7,0	-2,6
Bizkaia	10,5	0,9
Bilbo	12,1	2,5
Araba	10,7	1,1
Gasteiz	11,0	1,4

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.430	% 100	-% 0,2
Gizonezkoak	2.829	% 44	-% 3,7
Emakumezkoak	3.601	% 56	-% 2,8
Gipuzkoa	28349	% 0,0	-% 1,2
EAE	107.606	% 0,6	-% 0,8

Irailarekin alderatuta, Gipuzkoan langabe bat gutxiago zenbatu da (-0,004%), bitartean EAEn langabeen kopuruak %0,6ko igoera izan du.

2024ko urriarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (- % 1,2 eta - % 0,8)

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 3. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,0 urrian), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2025ko hirugarren hiruhilekoan, langabezia-tasari txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	4,1	5,4	4,7
Donostia	5,4	3,0	4,2
Bizkaia	7,2	8,7	7,9
Bilbo	7,6	9,5	8,5
Araba	8,0	6,9	7,5
Gasteiz	8,8	7,4	8,1
EAE	6,3	7,3	6,8

Eustatek, Lanbide ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 65 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko hirugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,1	54,0	56,5
Donostia	59,7	50,7	54,8
Bizkaia	60,5	51,1	55,6
Bilbo	60,7	49,4	54,6
Araba	64,0	53,1	58,4
Gasteiz	63,8	52,8	58,1
EAE	60,6	52,3	56,3

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko hirugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	56,7	51,1	53,8
Donostia	56,4	49,2	52,5
Bizkaia	56,2	46,6	51,2
Bilbo	56,1	44,7	50,0
Araba	58,8	49,4	54,0
Gasteiz	58,2	48,9	53,4
EAE	56,7	48,5	52,4

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



2025eko urriaren 31ean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.295 langabe erregistratu dira Lanbiden (+10 irailaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.407 langabe erregistratu dira Lanbiden (-56 irailaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.170 langabe erregistratu dira Lanbiden (+4 irailaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.086 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+24 irailaren aldean).
- 25 urtetik beherako 472 langabe erregistratu dira Lanbiden (+7 irailaren aldean).

Langabeen kopurua igo egin da adin-tarte guztietan, 45 eta 54 urte bitartekoetan izan ezik. Talde honetan izandako jaitziera (-56 pertsona) bestelako tarteetan (+45 pertsona) erregistratutako langabeziaren hazkundera konpentsatzen du.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 56,4	% 43,6	-12,7
25 eta 34 urte bitartekoak	% 47,1	% 52,9	5,7
35 eta 44 urte bitartekoak	% 39,7	% 60,3	20,7
45 eta 54 urte bitartekoak	% 44,6	% 55,4	10,7
55 urtetik gorakoak	% 41,8	% 58,2	16,4

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, urriko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 20,7 puntukoa da (23,7 irailean).


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tarteetan) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 19 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 42,6k derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 19,8k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,6	%54,1	%55,2
30 urtetik beherakoak	%24,2	%26,3	%25,3
Iraupen luzeko langabezia	%44,4	%45,0	%48,6
Atzeritarrak	%15,9	%21,1	%19,4
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%17,8	%16,1	%14,5
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%19,8	%12,6	%12,1
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%42,6	%51,1	%53,8

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 17,8), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,1) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa (% 14,5).**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Urrian, emakume langabeen kopuruak behera egin du eta gizon langabetuena berriz gor. Testuinguru horretan, **emakumezkoen kontratazioa gizonezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen erdia baino gehiago lanaldi partzialekoak dira** (% 55), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 36 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 12,2 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Urrian 8.461 kontratu sinatu dira, hau da, irailean baino **% 12,9 kontratu gutxiago** (1.254 kontratu gutxiago).

2024ko urriaren aldean, 889 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 9,5 egin du behera.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.461	%40,9	5.000	%59,1	8.461
Aldi baterakoak	2.473	%39,7	3.755	%60,3	6.228
Mugagabeak	988	%44,2	1.245	%55,8	2.233
Lanaldi partziala	1.260	%31,6	2.729	%68,4	3.989
Lanaldi osoa	2.201	%49,2	2.271	%50,8	4.472

Kontratu horiekin 6.162 pertsona kontratatu dira, hau da, irailean baino % 14,4 gutxiago (1.112 pertsona gehiago).

2024ko urriaren aldean 247 pertsona gutxiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 3,8 egin du behera.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,3 kontratu sinatu ditu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.593	%42,1	3.569	%57,9	6.162
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	758	%42,6	1.022	%57,4	1.780
25 eta 34 urte bitartekoak	759	%46,1	889	%53,9	1.648
35 eta 44 urte bitartekoak	438	%41,9	607	%58,1	1.045
45 eta 54 urte bitartekoak	409	%38,1	664	%61,9	1.073
54 urtetik gorakoak	229	%37,2	387	%62,8	616
Atzeritarrak	595	%44,1	755	%55,9	1.350

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen **% 26,4 mugagabeak ziren** (%28 irailean).
- Sinatutako kontratuen **% 47,1 lanaldi murriztukoak dira** (% 45,6 irailean). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 68).
- Kontratuen **% 56 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.**
- Kontratuen **% 27 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte.** Horietatik **% 62,2 emakumeak dira.**
- Kontratatutako pertsonen **% 21 atzerritarrak ziren.** Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen **% 56 emakumeak ziren.**

Kontratuak sektore nagusien arabera ¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobait handitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 18,3** sinatu ditu (% 17,9 irailan).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 24,5** sinatzen ditu (% 24,8 irailan). Gainera **sektore hau da kontratu mugagabeen bolumen handiena sinatu duen bigarren sektorea**, 547 kontratu mugagabe (Zerbitzu operatiboetan 579 kontratu sinatu dira).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 35,4 mugagabeak dira** (% 38,9 irailan)
- Kontratazioaren **partzialtasuna hazi egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 61,9 lanaldi partzialekoak dira (% 54 irailan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 11,6 sinatu ditu** (irailako maila bera).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14** (% 12,3 irailan) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 15,1** sinatu ditu (%15,7 irailan).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 31,7 mugagabeak dira** (% 31,5 irailan).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 61,3 lanaldi partzialekoak dira** (% 65,5 abuztuan).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (0,0%)	-	-
Eraikuntza	84 (3,8%)	89%	11%
Industria	54 (2,4%)	61%	39%
ostalaritza	547 (24,5%)	53%	47%
Merkataritza	312 (14,0%)	37%	63%

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	187 (8,4%)	30%	70%
Osasuna eta gizarte zerb.	142 (6,4%)	27%	73%

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	579 (25,9%)	38%	62%
----------------------	-------------	-----	-----

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (0,0%)	-	-
Eraikuntza	20 (0,5%)	70%	30%
Industria	104 (2,6%)	66%	34%
ostalaritza	956 (24,0%)	39%	61%
Merkataritza	604 (15,1%)	27%	73%

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	247 (6,2%)	28%	72%
Osasuna eta gizarte zerb.	754 (18,9%)	15%	85%

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	1.028 (25,8%)	32%	68%
----------------------	---------------	-----	-----

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,6 baino ez dira mugagabeak.

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Lehen sektorean, Industria eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 100, % 95,6 eta % 89,7 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, eta osasun sektorean. Gainera, azkenengo honetan, non kontratuen % 55 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 85 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau) eta


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektorean (%13), industriak (%31) eta eraikuntzak (%9) eskaintako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 75 eta osasun-sektoreko kontratuen % 77 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (515 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (22 kontr.), higiezin-jarduerak (15 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.266 kontr.), administrazioa publikoa (62 kontr.), beste zerbitzu batzuk (143 kontr.) eta etxetako jarduerak (230 kontr.).

DSBEaren hartzaileak²


Urrian zehar 3.505 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian (irailean baino 17 pertsona gutxiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen % 60,6 emakumeak dira.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,4 dira.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,2k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30,4 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,4	%1,0	%0,6
20 - 24 urte	%2,8	%2,7	%2,9
25 - 29 urte	%4,4	%5,2	%5,2
30 - 34 urte	%6,6	%7,5	%7,5
35 - 39 urte	%8,3	%9,4	%9,2
40 - 44 urte	%8,8	%10,3	%10,1
45 - 49 urte	%9,8	%11,4	%10,6
50 - 54 urte	%10,4	%11,0	%10,7
55 urtetik gora	%48,4	%41,5	%43,1
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%52,6	%60,9	%58,1
Batxilergoa	%8,9	%6,8	%6,8
Lanbide Heziketa	%22,6	%18,4	%20,8
Unibertsitatea	%7,8	%4,7	%4,9
Informaziorik gabe	%8,0	%9,2	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%21,2	%20,7	%21,4
Oinarrizko DSBE modalitatea	%78,8	%79,3	%78,6
Gizonak	%42,1	%42,2	%42,1
Emakumeak	%59,3	%57,8	%57,9

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.400	144	%0,98
Altza	20.004	564	%2,75
Amara Berri	29.253	419	%1,43
Antiguo	13.729	139	%1,01
Añorga	2.695	29	%1,08
Ategorrieta-Ulía	3.923	66	%1,61
Centro	21.209	343	%1,62
Egia	14.216	347	%2,43
Gros	17.211	281	%1,63
Ibaeta	9.738	129	%1,33
Igeldo	1.081	6	%0,56
Intxaurrondo	15.426	503	%3,27
Loiola	6.057	167	%2,77
Martutene	2.654	78	%2,98
Miracruz-Bidebieta	8.616	284	%3,27
Miramón-Zorroaga	2.370	22	%0,97
Zubieta	292	1	%0,34

²DSBA: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) hilero ematen den prestazio ekonomikoa da, eta oinarrizko premiak asetzeko diru-sarrerak nahikorik ez duten pertsonen eta familiei gutxieneko baliabideak bermatzeko da. Honako hauek jaso dezakete prestazio hori: enplegurik ez dutenak, diru-sarrera txikiak dituzten langileak, baliabide mugatuak dituzten pentsiodunek edo bestelako laguntza eskasak jasotzen dituztenak, besteak beste.